

MUSIKA. Katarain estudioetan grabatu zuten lana eta Elgoibarko gaztetxean aurkeztuko dute apirilaren 5ean

Inguruko kezkak soinu gogorrekin bildu ditu Ekonek azken diskoan

‘Salatzen dut’ (Gor) Arrasatekoek kaleratzen duten hirugarren lana da



Izenburua: Salatzen dut.

Taldea: Ekon.

Musikariak: Juan Sangre (ahotsa, sanplerra), Heloy (bateria), Yago (gitarra), Xabi (gitarra erritmikoa), Iñigo (baxua), lan (bigarren ahotsa), Naiara (ahotsa), eta Ines (ahotsa).

Disketxea: Gor.



MONIKA DEL VALLE/ARGAZKI PRESS

Ekoneko kideek *Salatzen dut* diskoa aurkeztu zuten atzo Bilbon.

Estibalitz Ezkerra | **BILBO**

Denbora luzea zeraman Ekonek disko berrikeri aterabgabe. 1994an taldea sortu eta handik gutxira *Zurrumbilo kaotikoa* lana aterabazuten, jarraian *Etnia 2000* etorriko zen, eta ondoren isilunena. Orain inoiz baino indartsuago irtengo dira plazetara, *Salatzen dut* disko berria aurkeztetara. Beren «lanik biribilena» dela diote, bai soinu aldetik bai hitzen kalitateari dagokionez. «Abeslaria aldatzeak erregistro maila zabaltu digu, eta lan honetarako soinua ahalik eta ondoen zaintzen ahalegindu gara. Alabaina, ez genuen musikak

hitzak iluntzerik nahi, eta elementu biak modu egokian konbinatzen saiatu gara», esan du Juan Sangrek.

Azkarateko Katarain estudioa lekuko, grabaketa lanek iragan urrian hasi eta urtarrila arte iraun zuten. Lehen saioetan ahotsa eta sanplerrak sartu zituzten, instrumentuetara igarotzeko ondoren. Estudioan ordu asko igaro zituztela dio Yagok, nahita gainera. «Lasai eta denborarekin egin nahi genuen lana, eta ez, aurreko diskoetan bezala, dena azken unerako utzi. Abestien onerako izan dela inongo dudarik ez dugu».

Salatzen dut diskorako hain-

bat musikariren laguntza jaso dute Ekonekoek, besteak beste, Kashbadeko Sorkunena, Selectah Kolektiboko Zigorrena edo Pilteko Aitorrena. Baina norbaiti beren esker ona adierazi behar izatekotan, S.A.-ko Jimmyri zuzenduko liokete hura. «Aspaldiko laguna dugu Jimmy. Aurreko diskoetan ere ondoan izan genuen, eta oraingoan bere gain hartu du ekoizpen arloa. Askok inplikatu da lanean eta gustura ibili gara berarekin», azaldu du Yagok.

Inguruko kezken isla

«Barruan zegoena ondo definitu zuen izenburua nahi ge-

JUAN SANGRE

Ekon taldeko abeslaria

«Disko biribilena dugu haxe. Soinua eta kantuen hitzak ahalik eta ondoen zaintzen ahalegindu gara»

nuen, eta *Salatzen dut* leloarekin geratu ginen. Euskararekiko kezka, euskal gazteriak pairatzen duen eskubide murrizketa, medioen manipulazioa... Gaur egun Euskal Herrian gertatzen ari deneko isla dira kantuak»,

dio Juanek. Horrekin batera, askozaz ikuspegi zabalagoa duten abestiak ere aurki daitezke diskoan, hala nola immigrazioari edo klonazioari buruz mintzo direnak. «Oro har, disko bakoitzean aurrekoa ez errepikatzen ahalegintzen gara. Baina errealitatea nola dagoen ikusita, zaila izaten da zenbait gairi behin eta berriz ez heltzea».

Apirilaren 5ean egingo du Ekonek diskoaren aurkezpen ofiziala Elgoibarko Gaztetxean. Ondoren, Bilboko Kafe Antzokian, Burlata, Sestao, Hospitalet, Gasteiz, Ondarroa, Lizarra eta Zeanuri herrietan izango da taldea.


Agentziak | **LONDRES**

Maiatzaren 14an estreinatuko da, sei urteko prestakuntza lantzen ondoren, eta Londresko antzerki denboraldiko ikuskizunik ikusgarrienetakoa izatea espero da. Queen taldearen kantu batetik hartutako izenburua du, *We will rock you*, eta hain zuzen ere rock talde ospetsuaren kantuekin osaturiko musikal futurista da.

Ikuskizuna atzo aurkeztu zuten Londresko Dominion Theatre; Robert de Niro aktore eta zine zuzendariak —ikuskitzunenaren ekoizleetako bat—, Ben Elton gidolariak eta Queen taldeko Brian May eta Roger Taylor musikariek. Segurtasun neurri handiek inguratu zuten obraren aurkezpena.

De Niroren eta Queen arteko lehen harremana 1996ko Veneziako zinemaldian gertatu zen. Queenen lanetik abiatuta antzezlan bat egiteko proposamena egin zien De Nirok musikari britainiarrei. «Hasie-

Queen taldearen abestietan oinarrituriko musikal futurista ekoitzi du Robert de Nirok



YUI MOK / EPA

Ben Elton, Robert de Niro eta Queen taldeko Brian May eta Roger Taylor, atzoko aurkezpenean.

rako asmoa zen taldearen historiari buruzko gidoi bat egitea, baina geroago konturatu ginen gogorregia izango zela

geure buruak agertoki batean antzeztuta ikustea», azaldu zuen Brian Mayk.

We will rock you «musikal fu-

turista bat da, non globalizazioa erabatekoa den eta musika tresnak debekaturik dauden», adierazi zuen Ben Elto-

nek metro geltoki baten hondakinak irudikatzen dituen dekoratuan. «Protagonisten ametsa da egunen batean rock musika egin ahal izatea. Beren armak gitarrak dira», gaineratu zuen. Ikuskizunak 7,5 milioi librarako aurrekontua du, Christopher Renshaw Broadwayko zuzendari ospetsuak zuzendu du eta bere talde teknikoan Pink Floyd, Rolling Stones eta U2 taldeen birak ekoitzi eta diseinatu dituzten pertsonak daude.

Robert de Nirok esan zuenez, musikal baten ekoizpenean parte hartzen duen lehen aldia da, eta horregatik «hau dena egitea abentura bat izan da». Aurrerantzean musikaririk buruzko film bat egiteko aukera ez zuen baztertu De Nirok.

Queen taldeko musikariren kasuan, obra honek gauza berriak egiteko aukera eman die-la aitortu zuten, «Freddyren (Mercury) heriotzatik apur bat mugatuta baikaude», esan zuen Mayk.